



AMAIA ZENTROA
Benito Perez galdos z/g
01002 GASTEIZ
araba@bertsozale.com
945010505



Udazken ta negu-giro
Gertatuko da berriro
Hostoak jausi lurrera eta
Txapel bat burura igo

Oion, Murgia... BEC!

ABE



“**Bertsoa da oinarria**”. Horixe gogorazterea dator 2013ko Bertsolari Txapelketa Nagusia. Zalantzarako tarterik uzten ez duen esaldia bada ere, batzuetan ahaztu egiten zaigu zer dagoen jatorrian, zeri jarri behar diogun benetan arreta. Beraz, horixe: bertsoa oinarri, txapelketa oso bat.

Araban ere utziko du arrastoa txapelketak, ezin bestela izan. Bi saio izango ditugu gurean, txapelketaren martxan harilkatuta. Ahaztu gabe, bi saio horien aurretik, **Oihane Pereak** kantatuko duela **Altsa-sun, urriaren 13an**, Burunda pilotalekuan. Animoa eskertuko du, seguru...

Hona bi saioak: batetik, **urriaren 26an** jokatuko da kanporaketa bat **Oionen**, Arroyo I. pilotalekuan. Kanporaketen faseko azkeneko saioa izango da; beraz, saio horretan erabakiko da nork egingo duen aurrera, 2. faseko jautzia. Morbo puntua izango du, beraz. Horretaz gain, **Manex Agirrek** kantatuko du bertan (horrek ere badu interesa!), Miren Amurizarekin, Etxahun Lekuerekin, Iratxe Ibarrarekin, Maddi Sarasuarekin eta Eneritz Zabaletarekin.

Finalurrekoetara jauzi egin ondoren, **azaroaren 17an** egingo du buelta Arabara txapelketak: **Murgian** jokatuko da 1. bueltako hirugarren saioa. Aitor Mendiluze eta Sustrai Colina izango ditugu bertan, kanporaketetatik aurrera pasatako ez gain.

Eta, noski, finalaz ezin ahaztu: abenduaren 15ean izango da BECeko festa itzela. Agendak betetzen has zaitezke, beraz.

Saio guzti hauetarako sarrerak erosteko, errazena bertsozale.com web orrian sartzea duzue. Hala ere, finalerako sarrerak har ditzakezue **Gasteizen (Amaia Zentroan), Agurainen (Herriko Tabernan), Aramaion (Eki tabernan), Laudion (Arrañope tabernan) eta Amurrión (Txokogorri tabernan)**. Bestalde, informazio guztia bertsozale.com web orriko txapelketaren atalean duzue. Gozatu!!



ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEAREN

Berripapera

Argitalpenaren laguntzailea:



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

www.alava.net

Udazkenean kurtsoa hasten da, neguan gabonak daude, udaberrian loreak eta udan jaiak. Eta zenbat maite ditugun jaiak, e? Bai, eskutik doaz bertsoa eta jaiak eta aurten ere horrela izan da. San Juanetan hasi eta abuztu bukaera arte hogeita hamazazpi saio izan dira gurean. Mota ezberdinetakoak izan ditugu: librekoak, musikarekin, desafioak, jaialdiak, umeentzako saioak... Hala ere, hau ez da gelditu iraila iristearekin. Saioek jarraitzen dute eta entzuleok, oraindik ere, gose gara.



Bertso Eskolak, aurkeztu... Eta ekin!

ABE transmisioa

Bertsolaritza ez da jendea mikrofono aurrean jarri eta kantatzen hastea bakarrik: atzetik badu egitura, badu lana... Eta guzti horren gunea bertso eskola da. Izan herrian, izan hirian, bertso eskolaren inguruan antolatzen da bertso-mugimendua.

2013-2014 ikasturtea ere indartsu hasi nahi dute Arabako bertso eskolek. Hona hemen bakoitzaren aurkezpen data eta tokiak:

- LEGUTIO: Irailak 30, 17:30ean Kultur Etxean
- LAUDIO: Irailak 30, astelehena, 17:30ean Kultur Etxean
- GASTEIZ: Irailak 30, 18:00etan Amaia zentroan
- MURGIA: Urriak 2, 15:30ean Murgia institutuan
- ARAIA: Urriak 11, 16:30ean Kultur Etxean
- ARAMAIO: Urriak 11, afaria Marixekako Elkartean
- AGURAIN: Urriak 18, 18:00etan Aguraingo Bertso Eskolan
- ZALDUONDO: Urriak 19, 16:30ean Zalduondo Txokoan

Hauetaz gain, oraindik data finkorik ez badute ere, urrian zehar Izarrako, Mendialdeko, Amurrioko eta Arabar Errioxako bertso eskolak ere aurkeztuko dira. Topera!



Webgune berria!

ABE sustapena

Ez geratu lotan!
Wezzzzzzzzz
berria dugu



www.bertsozale.com/araba



Aldaira egin dugu: www.arababertsozale.org utzi eta www.bertsozale.com/araba domeinuan aurkituko gaituzue hemendik aurrera. Arabako Bertsozale Elkartearen web gunea izateaz gain Arabako agenda eta bertsoaritzari buruzko beste albiste batzuk aurkituko dituzu. Bertsozale.com web gunea Araba, Bizkaiko, Gipuzkoako, Nafarroako Bertsozale Elkartearen, Xiberoa, Lapurdi eta Baxe Nabarrako Bertsozale Elkartearen eta Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen interneteko gunea da.

Udalekuak ere joan dira...

ABE transmisioa

Aurtengo uda eguzkitsu honetan Arabako etorkizuneko bertsolari txikiak kostaldera egin zuten bidaia. Aiaraldetik... salto **Lekeitioko** olatuetan murgiltzera! 24 bertsolariño eta 4 bertsoaritzar aritu ziren piratak bailiran kostaldeko bazterrak nahasten, karramarroak harrapatu han, olatuak saihestu hemen, Oskarrek kanta ederrak sortu handik eta hareazko gazteluak eraiki hemendik. Ederki ari ziren pasatzen baina... konturatzerako Bertso-Udaleku txikia amaitu zen!

Kostaldea horrenbeste maite ez zuten 40 bertsolariñok ordea, nahiago izan zuten Arabako bihotzera bidaiatzea, **Barrian** aste-bete igarotzea. Pista jolas ederrak prestatu zizkieten Garbiñe eta Zikiñek, basoan barrena basajaun jolasetan aritu ziren goiz batez edota igerilekuan ia urez husterainoko saltoak egin zituzten behin eta berriz. Beste egun batean, Ander Solozabal, Jagoba Apaolaza, Maite Solozabal eta Iker Pastor bertsolari gazteen bisita paregabea izan zuten eta Araban itsasorik ez denez... Garaiora joan ziren egun pasa piratakeriak egitera.

Uda polita izan da... Baina lasai bertsolariño, ohartzerako **Gabonetako bertso barnetegian** izango gara eta!



Irakasleak, prest!

ABE transmisioa



Azken urteotan ohikoa denez, Irailaren 12, 13 eta 14an Arabako irakasle eta irakasle gaiek **formazio asteburua** izan zuten, **Eulateko aterpetxean**. Bertso Eskoletan lantzeko edukiak eta metodologia landu zituzten ostiral arratsaldean, BERTSO GIDA apur bat ezagutu, hainbat jolas eta teknika praktikan jarri eta joko eta jardueren gida labur bat sortu zuten denen artean, elkarren ezagutzak eta esperientzia partekatzeko aukera paregabea izan zutelarik. Eskolartekoari buruzko hausnarketa eta Oskar Estangaren tailerra ere egin zituzten. Langileak, gure gazte hauek...

ZERNAHI: pozik legoke Ataño

Bert



Inolako zalantzarik gabe. "Jesusen bizitza" bertsotan kontatu zue-
nak bere konbikzio katolikoan araberako poz-adierazpen sosegatu
eta neurtuak egingo lituzke, Bertsozale Elkartearen azkeneko as-
moaren berri balu...

Zer, eta euskaltegi-tara bidaltzea norbait, bertsoa zertan datzan
azaltzera. Hau da, ebangelizazio-lanak egitera, jarraitzaile berriak
bertso-kristautasunaren barrura erakartzera. GUASEEEEN GUA-
SEEEEN GUSTIIIIIIIIOK IÑAKIMURUA ADORATSEEEEEEEEEERA...

Eta ebangelizatzailea nor izango den? Begiratu ondoko irudia, eta
asmatu. Eta ez da Xebastian Lizaso.

AGENDA

Irailaren 28a, larunbata. 13:00ean Elosun

Bertso-saioa: Iñaki Viñaspre eta Paula Amilburu

Urriak 5, larunbata. 14:30ean Garrastatxun (Baranbion)

Bertso-bazkaria: Sustrai Colina eta Andoni Egaña

Urriak 5, larunbata. 14:00etan Argantzunen

Bertso-poteoa: Felipe Zelaieta eta Ruben Sanchez

Urriak 5, larunbata. Urizaharran (herriko plazatik hasita)

Bertso-poteoa

Urriak 8, asteartea. 12:30etik aurrera Agurainen (Andramari plazan)

Bertso-saioa

Urriak 11, ostirala. 19:30ean Oionen (herriko plazan)

Bertso-saioa: Arrate Illaro eta Andoni Egaña

Urriak 13, igandea. 13:00ean Agurainen (Andramari plazan)

Bertso-poteoa

Urriak 17, osteguna. 18:00etan Gasteizen (Ariznabarrako gizarte etxean)

Umeentzako saioa: "Bertsolharitza"

Urriak 17, osteguna. Oionen (IKA euskaltegian)

Bertso-saio didaktikoa, Ruben Sanchezen eskutik

Urriak 18, larunbata. Gasteizen (Kutxiko tabernetan)

Bertxorakeriketa

Urriak 20, igandea. 12:30ean Gasteizen (Iradier Arenan)

Bertso-kontzertua: "Bat-batean, munduko musikekin bertsotan)

... ETA EZ AHAZTU TXAPELKETA NAGUSIAREKIN!!

Urriak 26, larunbata. 17:30ean Oionen (Arroyo I. pilotalekuan)

Bertsolari Txapelketa Nagusiaren kanporaketa

Azaroak 17, larunbata. 17:30ean Murgian (Palatu Kiroldegian)

Bertsolari Txapelketa Nagusiaren finalaurrekoa